



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Iruñeko atxilotze-aldi luzea

Iruñea, 1939. Urte hasieran, hiriko zezen-plaza kontzentrazio-esparru modura erabili zuten frankistek. 3.000 gerra presorentzako edukiera izan zuen ofizialki; Nafarroan une horretan frontetik ez zegoenez, gerra presotzat baino errepresaliatu politikotzat jo behar dira han giltzaperatutakoak. Eta zezen-plazakoa ez zen Nafarroako esparru bakarra izan. Carlos Hernández de Miguel kazetariak *Los campos de concentración de Franco* ikerlanean jaso zuenez, beste hiru eraikin erabili zituzten helburu berberarekin: La Merced komentua, Iruñean bertan; Iraxeko monasterioa, Lizarran; eta Tafallako Akademia militarra. Guztira, 8.000 presorentzako tokiak zegoen lau esparru horietan. Espainiako Estatuan horrelako ia 300 gune erabili zituzten eta 700.000-1.000.000 herritar sartu zituzten horietan. 1939aren amaieran esparru horiek guztiak pixkanaka ixten joan ziren.

Baina Iruñean halako espazioak frankismo osoan zehar erabili ziren, Nafarroako Oroimen Historikoaren Funtsak aurtengo maiatzean argitaratutako *Cartografía e historia de la cautividad bajo el franquismo: Iruñea-Pamplona (1936-1978)* txostenaren arabera.

Aipatutako La Merced komentuaz gain, Eliza Katolikoari lotutako beste hainbat gune erabili zituzten: Eskolapioen, Salesiarren eta Jesusen Urtsulararren eskolak, Seminario Zaharra... Horiez gain, Falangeak indarrez har-



ESPAÑIAKO LIBURUTEGI NAZIONALA

Preso errepublikarrak Santanderreko zezen-plazan 1939an. Iruñeko zezen-plazak antzeko itxura izango zuen garai hartan, argazkirik ez dagoen arren.

tutako etxebizitza pribatuak erabili zituzten, baita hainbat instalazio publiko ere: Ospitale Militarra, Euskal Jai frontoia, San Joan futbol zelaia... eta, jakina, zezen-plaza.

1936ko Gerra amaituta eta, bereziki, 1945etik aurrera, atxilotze eta giltzaperatze praktika horiek behera egin zuten. Bigarren Mundu Gerrako potentzia faxisten porrotaren ondorioz, Frankismoak irudi errepresiboa leundu behar zuen. Baina, txostenak dienez, "1950, 1960 eta 1970eko hamarkadetan gatazka sozialek gora egin zuten", gune berriak erabili zituzten. "Mobilizazio sozialek, lan esparrukoek eta erregimenaren

aurkako agerraldi geroz eta ohikoagoek" eragiten zituzten atxilotetak. 1951n bertan, greba orokorrak atxiloteta andana eragin zuen, eta zezen-plazan 300 atxilotu sartu zituzten. Eta Frankismoaren azken urteetan egoerak okerrera egin zuen, gatazkek gora egin ahala. 1973an, adibidez, greba kopurua 1972an baino bost aldiz handiagoa izan zen.

Gaur egun, Ospitale Militar zaharra, esaterako, Nafarroako Museoaren egoitza da, eta zezen-plazan bestelako torturak egiten jarraitzen dute. Baina horrelako txostenak eta ikerlan berriak zabaldua, oroimen-gune ere bihurtzen dira herritarrentzat. ●



JOHNS HOPKINS UNIBERTSITATEA

Idazketa alfabetiko zaharrena?

Egungo Siriako Tell Umm-el Marra aztarnategian idazkunak dituzten hainbat zilindro aurkitu dituzte Johns Hopkins Unibertsitateko ikerlariek. Adituen ustez buztinezko pieza hauetan idatzitako zeinuak alfabetikoak izan litezke. K.a. 2400 urtean datatu dituzte zilindroak eta orain arte uste zuten idazketa alfabetikoa 500 urte geroago asmatu zela

Egipton edo inguruetan. Idazketa modu zaharragoak (hieroglifikoa, kuneiformea...) ikasteko oso zailak ziren eta idazketa alfabetikoak ezagutza askoz jende gehiagorengana hurbiltzeko bidea zabaldu zuen. Hipotesia egiaztatuz gero, komunikazioaren teknologiaren mugarri hori askoz lehenago garatu zela baieztatuko litzateke. ●